



Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

## IKUSMIRA

# DISKRIMINAZIOA DEFENDITZEA, LOTSAGARRI. ERRAZTEA, AREAGO

Hori izan da aldarrikapen nagusia aste honetan Euskal Herriko kaleetan. Beharko zorroztu -feminismoak egindako bidea gutxietsi gabe, ezta hurrik eman ere-, lekutan baitago oraindik berdintasuna, joan den astean Janus Korwin-Mikke eurodiputatuak gogorazi zuen bezala. «Emakumeek gizonen baino gutxiago

irabazi behar dute, ahulagoak, txikiagoak eta kamutsagoak direlako», esan zuen. (Des)arrazoi-bide horren arabera, Korwin-Mikke ez luke zentimorik kobratu behar, nonbait. Europako Parlamentuak, asaldatuta, haren kontrako ikerketa zabaldu du. Edonola ere, ez dirudi parlamentari horien asaldurak Korwin-Mikke defendatzen duen egoera aldatuko duenik, ez behinik behin Parlamentu horretako alderdi gehienek hitzez ez baina bai egitez emakumeek lan munduan diskriminazio nabarmena jasatea errazten eta are sustatzen duten bitartean. Esatea, lotsagarri. Batez ere egiten duenarentzat. Xabier Izaga Gonzalez